

Selekzioa Euskadi-Nigeria gaur San Mamesen

Edozelan ere, Exposito eta Iribarrek talde indartsua zelairatzeko aukera izango dute. Azpimarratzekoa da Pikabeak euskal selekzioarekin jokatzen duen seigarren partidua dela gaurkoa. Antonio Karmonak, berriz, debuta egingo du. Euskal selekzioa osatzen duten hemezortzi gizonak San Mamesen bilduko dira, gaur, goizeko hamarrak eta erdietan, entrenamendu saio arina egiteko. Aurreko orrialdeko koadroan azaltzen direnez gain, Imanol Etxeberria, Xabier Eskurza, Iñigo Larrainzar, Karmona bera, Bittor Alkiza, Iñigo Idiakez eta Oscar de Paula daude gaurko deialdian.

Nigeriako selekzioa da 1979tik izan duen aurkari gogorrena, inolako zalantzarik gabe. Iribarrek partiduen aurkezpen ekitaldian esan zuenez, gaurkoa test garrantzitsua izango da bi ekipoentzat.

Nigeriak Afrika Kopa irabazi zuen 1994. urtean, eta 1996an urrezko domina eskuratu zuen Joko Olinpikoe-tan. Gainera, Paraguai, Uruguai eta euskal selekzioak azken urteetan izan dituen beste aurkari batzuk ez bezala, Nigeria aurkari aproposa da futbol ikuskizun bikaina eskaintzeko. Izan ere, afrikarrak ez dira atzean sartuta ariko. Nigeriako selekzioak Afrika Kopa jokatuko du urtarrilean, eta, horrenbestez, seriotasun handiz ekingo dio gaurko lehiari.

Gaur festa handia izango da San Mamesen. Zoritxarrez, osteran, urtean behin baino ez du jokatzen Euskadi selekzioak. Ea Nigeriaren aurkako hurrengo partidua munduko txapelketa batean jokatzen duen euskal selekzioak.

Antonio Karmona • ALAVESEKO JOKALARIA •



XOUSE SIMAL

«Gure selekzioak garbi erakutsi du nazioartean lehiatzeko maila duela»

URTE ASKO igaro dira Karmona futboleko hasi zene-tik, eta 32 urterekin iritsi zaio euskal selekzioarekin jokatzeko aukera.

Zer da zuretzat Euskadi selekzioarekin jokatzea?

Harrotasun handia da. Horregaz batera, Euskadi selekzioan jokatzea nire helburu nagusietarikoa betetzea da. Lehen Mailan jokatu nahi nuen eta lortu egin dut, eta ia urtebeteren buruan Euskadi selekzioan jokatzeko aukera iritsi zait. Ezin pozago nago.

Aurrez aurre izango diren taldeak ikusita, garbi dago partidu gogorra jokatuko dela San Mamesen, ezta?

Inolako zalantzarik gabe.

Aurretik lagunarteko partidua izan arren, partidu garrantzitsua da bi selekzioentzat. Nigeria Afrika Kopa prestatzen ari da eta seriotasun handiz ekingo dio gaurko partiduari. Euskadi selekzioari dagokionez, goi mailako taldea dela erakusten saiatuko da. Euskadik behin bakarrik jokatzen du urtero, baina euskal jokalarionenak biltzen ditu eta talde indartsua osatzen du. Selekzioak garbi erakutsi du nazioarteko edozein txapelketetan parte hartze-ko maila duela.

Deialdian sartu ondoren, jokatzea izango da hurrengo helburua, ezta?

Euskal selekzioa osatzen duten jokalariek goi maila-

koak dira eta ez da erraza izango hamaikakoan izatea. Euskadi selekzioa talde sendoa da eta oso lehiakorra. Hamaikakoko postu guztiak ondo beteta daude. Selekzio bikaina dela uste dut.

San Mames bete-beteta ikustea espero duzu?

Bai, noski. Penagarria izan zen iaz Anoetan gertatu zena, harmailak erdi hutsik egon ziren eta. Ea aurten eguraldiak laguntzen duen eta San Mames beterik ikusten dugun. Gauza polita izango litzateke katedrala leporaino beteta ikustea. Izan ere, jokalariek zein zaleak egun honen zain bai-kaude gure selekzioa jokatzen ikusteko. Euskal futbolen jaia da.

Autobusak antolatu dituzte Euskal Herriko zenbait herritan

Atzo esan bezala, ESAITek autobusak antolatu ditu gaurko partidurako. Iparraldetik, Tolosatik, Oiarzun-Erreteriatik eta Iruñetik. Informazio gehiago lortzeko 943 491626 edo 656 711275 telefonoetara deitu behar da. Bestalde, Iruñeko Indar Gorri taldeak autobus bat antolatu du gaur Bilbora etortzeko. 15:30etan abiatuko da.

ESAITen kalejira 18:30etan, Areatzan hasita

ESAIT elkarteak kalejira bat antolatu du gaur arratsalderako. 6:30etan hasiko da, Areatzan, eta bertatik San Mameserantz abiatuko dira. Kalejiraren hasieran, Euskal Hintxak, EGI, Gazte Abertzaleak eta Jarrai gazte erakundeek adostutako agiria irakurriko dute Areatzan bertan.

Sarrera asko saldu dira gaurko partidurako

Jende ugari bilduko da gaur San Mamesen Euskadi eta Nigeriaren arteko futbol partidua ikusteko. Euskal Federaziotik adierazi dutenez, zale ugari joan da egunotan San Mamesko lehiatiletara sarrerak erostera. Horregaz batera, Federazioan bertan Euskal Herriko hainbat lekutatik jaso duten sarrera eskaera itzela izan da. Esan behar da San Mameseko lehiatila zabalik izango direla gaur goizean zein arratsaldean.

1988-5-10, Bilbo



EGUNKARIA

1990-3-21, Bilbo



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA

1993-12-22, Donostia



ANDER GILLENA

1994-12-23, Bilbo



IRAKI OTXOA

Euskadi 4 - Tottenham 0. Euskal selekzioa: Arkonada (Biurrun); Luis Lopez Rekarte, Andrinua, Larrañaga, Gajate, Urtubi (Ferreira); Ripodas, Zamora, Begiristain (J. A. Goikoetxea); Bakero eta Uralde (Julio Salinas). Euskal golegileak: Uralde (2), Julio Salinas eta Bakero.

Euskadi 2 - Errumania 2. Euskal selekzioa: Biurrun (Iru); Gomez, Alkorta (Lakabeg), Gorriz, Andrinua, Ferreira (A. Goikoetxea); Billabona (Argote), Urrutia (Iturrino), Bustingorri; Uralde eta J.A. Goikoetxea (Estibariz). Euskal golegileak: J.A. Goikoetxea eta Urrutia.

Euskadi 3 - Bolivia 1. Selekzioa: Zubizarreta; Luis Rekarte, Ribera, Larrañaga, Lizarazu; J.A. Goikoetxea, Bakero, Guerrero, Garitano, J. Salinas eta Begiristain. Bigarren zatian, Lopetegui, Ferrera, Alkiza, Imaz, Lasa, Pikabea eta Valverde irten ziren. Golegileak: Guerrero eta Salinas (2).

Euskadi 1 - Errusia 0. Euskal selekzioa: Zubizarreta (Cedrun); Luis Rekarte (Eskurza), Alkorta, Ribera, Uria (Karanka); Imanol (Pikabea), Garitano; J. A. Goikoetxea, Guerrero (Alkiza), Begiristain; eta Julio Salinas (Ziganda). Guerrerok egin zuen Euskadiko gola.